

PIARRES LAFITTE-n

Biografi pondu batzu

- 1901 *Maiatzaren 21-ean sortua Luboso Salaberrian, Joseph Lafitte Baigorriar eta Marie Viela Uztariztarraren ganik. Biharamunean Lubosoko Lafitte erretorak bataiatua. Biharamunagoan amañotan emana Senpereko Elisabeth Irigoyen andrearen gomendio, ama eriegi izanez.*
- 1903 *Higuintzatik landa Uztaritze Buxtingorriin amaren burrasoek altxatua. Uztaritzeko ama eskolan dabila.*
- 1906-ean, *aita Urruña Herburun aduanako errezebidore izanez, aita-ama, aitabitxi amabitxi eta bere anaia Alfred-ekin bildua. Oletan ibiltzen da eskolan.*
- 1909-an *ilabete baten barne aita eta ama zendurik, umexurtx dago. Ithorrotzen bizi den Eugène Viela osabak biltzen du.*
- 1912-an *Beloke-ko Semenario ttipian sartzen da, Urriaren 3-an.*
- 1919-ko *Bazko biharamunean Semenario handian sartzen da Baionan eta baxiller iragaiten da.*
- 1920-an *Saint-Pierre apezak biltzen du euskararen ikasterat.*
- 1923-an *gerlari obiekin etsamina guziak hiru urtez iragan-eta, eta gaztegi apez ordenaren ukaiteko, Semenarioan atxikitzen dute, nahi dituen ixtudioeri lotzeko. Urtea euskarari emaiten zaio.*
- 1924-ean, *Aita Sainduaren baimenarekin, 23 urtetan apezten dute eta udazkenean Tolosarat igortzen lizentzia baten apailatzerat. Bi urterik barne lau zertifikata biltzen ditu, artetik apostolu lanari ere obarturik.*
- 1926 *Jaun apezpikuak deitzen du Uztaritzen ideki berri den Semenariorat.6 garrena eta Alemana erakasten ditu.*
- 1927-an *galde egiten du Tolosarat itzultzea lizentziadura bururatu nabiz, eta urte bat iragaiten du Tolosan asko ixtudiotan ariz.*
- 1928-an *Uztaritzen 5 garrena eta Alemana tokatzen zaizko eta apez lanari ere lotzen da.*
- 1930-ean *3 garrena emaiten diote eskolatzerat eta hortan hogoi-ta-bamar bat urte eginen du filosofiako gazteri erlisionea erakutsiz bertzalde. Artetik euskarazko lanetan ari da, Eskualduna kazetan, Gure Herria aldizkarian Aita Lhande-n hiztegian, Aintzina ilabetekarian eta abar.*
- 1936-ean *beharko du bertze lan bati lotu: Imanol Ynchausti Jaunarekin ariko da Euzkadiko haur iheskariez arta hartzen.*
- 1940-eko *Apirilean Avignon-erat deitua da soldado eta handik laster Versaille-ko «Ecole des Officiers de Réserve du Génie» delakorat igortzen dute. Uztai-*

- lean jautsarazten dute eskola guzia Saint-Sulpice-la-Pointe, Tarn-eko eskualderat.*
- 1940-eko Aboztuaren 2-an desarmatuak dira, eta Lafitte itzultzen da Uztaritzetat. Bere lanak hartzen ditu berriz ere: Grammaire Basque, Kantuz eta Errepikan ager-arazten ditu.
- 1944-eko Azaroan ateratzen da HERRIA astekaria. Semenarioan arintzen diote eskolalana. Bainan Baionako Centre Universitaire Lavigerie delakoan greko mintzairer eta literatura erakasten ditu lizentziatu-gaiari. Semenario handian ere astean behin euskara poxi bat emaiten du.
- 1949-an Euskalzain oso izendatua da Georges Lacombe-n orde; urgazle izendatua izana zen 1928-an Darricarrère kapitainaren lekuan.
- 1958-1967 frantses literatura erakutsi du Ienean eta Filosofia eskolan.
- 1961-ean oborezko kalonje egina da Baionako diosesako.
- 1967-an irakaskuntza utzi du eta Herriaren moldatza ere ba, lehenik Hiriart-Urruty eta gero Emile Larre apezerei.
- 1968-ko Urtatsetik, 1976-eko Abendoaaren azkenerat, langile hartu dute Centre National de la Recherche Scientifique delakoan, Linguistique Générale sailean.
- 1977-ko Urtatsetik aintzina zabar arrandari da, nahiz ez duen euskararen lantzea baztertu.
- 1982-an EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK «doctor honoris causa» egiten du Leioan.

PIARRES LAFITTE-n LAN ZERRENDA BAT

FRANTSESEZ

Hitzaldiak

- *Les Etudes Basques à travers les siècles.*
- *M. le chanoine G. Adéma et l'abbé J. Barbier.*
- *Les erreurs relatives à la Ste Vierge dans le culte à travers le diocèse de Bayonne.*
- *Le Basque et la littérature d'expression basque en Labourd, B. Navarre et Soule.*
- *Le Père Blaise Babaquy religieux et auteur basque.*
- *Un journaliste basque: le chanoine Jean Hiriart-Urruty.*
- *L'état actuel des Etudes Basques (1954).*
- *Les courants de pensée dans la littérature basque contemporaine.*
- *Autour de Miguel de Unamuno.*
- *Les penseurs basques, de l'époque romaine à la fin du XVIIIe siècle.*
- *L'apport du professeur Gavel aux études basques.*
- *Religieux et religieuses dans le diocèse de Bayonne, dans la seconde moitié du XIXe siècle.*
- *Etude du vocabulaire basque à l'école.*
- *La poésie de Gasteluçar.*
- *Sabin Arana Goiri: sa vie, son oeuvre, son influence.*
- *J. Martin Hiribarren et son temps.*
- *Georges Lacombe.*
- *Manech Etchamendy, poète basque.*

Artikulu zenbait

- *L'accentuation labourdine au XVIIIe siècle selon l'Etorkia de Pierre d'Urte.*
- *Autour des études gasconnes.*
- *«Basques» (Encyclopedia Universalis).*
- *Cambo dans la littérature basque.*
- *Deux billets d'amoureux souletins écrits vers 1800.*
- *Deux traductions basques de «l'Enfant Prodigue», ou J. de Haraneder revu par M. Harriet.*
- *Un essai de pastorale labourdine: Orreaga. Etude comparative avec la pastorale souletine.*

- Une géographie diachronique du Basque en Navarre.
- Louis Etcheverry.
- L'opéra de Biarritz.
- Introduction à une réédition du « Pays Basque » de Francisque Michel.
- Avant-Propos pour une réédition de « La Tradition au Pays Basque ».
- Philippe Veyrin écrivain.
- L'expression de l'aspect en basque.
- La proposition exclamative en basque.
- Autour de la Bible du Père Olabide.
- A propos de gizon bat et gizon bi.
- Le dictionnaire étymologique du basque labourdin, b. navarrais et souletin de Löpeltmann.
- Cinq dictionnaires basques.
- Luis Michelena et son oeuvre.
- L'apport de René Lafon aux études basques.
- Propositions pour un dictionnaire du verbe basque.
- Florentin Vogel mainteneur de la musique basque.
- L'abbé Dartayet, ses manuels de conversation basque et son plain-chant musical.
- Quelques mots basques relatifs à l'astronomie.
- Un inédit d'Oyhenart: L'Art poétique basque.
- Copiage bio-bibliographique autour du poète Jean Etcheverry.
- La littérature basque dans l'ambiance d'Ustaritz.
- Notre chapelle.
- Précisions relatives aux abbés Martin et Louis Dubalde d'Ustaritz.
- Quand parut la seconde édition du *Linguae Vasconum Primitiae*?
- Les premières versions basques du Pater en Labourd, B. Navarre et Soule.
- Récréation linguistique: Libratu et Askatu.
- Redoublement de mots basques avec introduction d'une -m.
- Le serment d'Hippocrate en basque.
- Sur le suffixe -ke.
- A propos de l'unification du basque littéraire.
- Deux thèses de doctorat relatives à Pierre Topet-Etchahun, poète souletin (de Jean Haritschelhar).
- A propos d'une pastorale: Jeanne d'Arc.
- Autour d'une glose basque du Xe siècle.
- L'auteur de Maitena (Decrept) est mort.
- Le basque dans l'enseignement primaire.
- Un bertsulari: Pierre Capdevielle.
- Les citations d'Axular.
- Comment la valeur de quelques suffixes s'est précisée en basque.
- Curiosité linguistique: Behereharta.
- Un desideratum sur la manière de transcrire les noms basques.
- Deux actes notariaux de 1784 (De Saint-Pée-sur-Nivelle, montrant les difficultés d'une aliénation de propriété selon la coutume de Labourd).

- Pour 25 francs.
- Deux chansons de Beñat Mardo découvertes par la R. P. Lhande.
- Madame G. Guillaumie-Reicher en Sorbonne.
- L'enseignement des langues régionales, préface à la législation.
- Une épée d'Académicien (Claude Farrère).
- Pour le Pays Basque (Court commentaire du programme «eskualerriste» à l'usage des militants).
- L'Etat et l'enseignement du Basque.
- Georges Hérelle.
- Homère et le Basque.
- La langue basque de 1939 à 1947.
- Langue et musique basque chez les Israélites.
- Mgr Saint-Pierre, le linguiste et l'écrivain basque.
- La logique en orthographe basque.
- M. Saroïbandy.
- Un mot sur la légende de Sanche-le-Fort dite par Marc Légasse.
- Note sur le mot Koska.
- Notre drapeau.
- Notre maître, M. le docteur Etchepare.
- Un nouvel évêque basque: Mgr Clément Mathieu.
- L'origine des noms propres basques.
- Le labourdin dans Ithurry.
- Lettre ouverte à M. Nicolas Ormaechea.
- Pour ou contre la passivité du verbe basque.
- Sur le sens du mot Ohi dans quelques textes.
- Rapports des formes et des formules.
- Réflexions sur l'origine des préfixes pronominaux dans le verbe basque.
- Ressemblances linguistiques.
- Rossini et la musique basque.
- Le suffixe -ekin.
- Toki et Tegi.
- La toponymie basque et les nouvelles cartes de France.
- Transcription des noms basques sur les Cartes d'Etat-Major.
- Préface au Basabürrian de J. Jaureguiberry.
- Préface à Eskualdunak de P. Charritton (euskaraz).
- Préface à Etchebandia de Mlle Elissagaray.

EUSKARAZ

Hitzaldiak

- Apez eskualdun batek behar luken kulturaz.
- Kobla eta otoitza.
- Zahar eta berri.

- *Aita Xabier Diharce-n euskalzaindian sarrerako.*
- *Girixtinoa bertsulari.*
- *Atlantika Pirene-etako sineste zabarrak.*
- *Erlisone paganoak eskualde hauietan.*
- *Amodiozko kantuak iparraldeko herrietan.*
- *Larzabal euskalzain berriari ihardespena.*
- *«Larreko» eskualzale eta idazlari.*
- *Manuel Lecuona eskualzale.*
- *Mende huntako euskaldun idazleen pentsamoldeak.*
- *Luis Dassance-n ebortzetako hitzaldia.*
- *Aita J. L. Polit-en hil mezako hitzaldia.*
- *Alfonsa Rodriguez, Lopez eta d'Abense-na.*

Bertsuak

- *Aita Lhande onari.*
- *Badea deus ederragorik?*
- *Chaubadin.*
- *Deia.*
- *Ene kaiolan bi xori.*
- *Haur bilaren arreba eta ama.*
- *Itsas-aldetik.*
- *Itsas-haindian.*
- *Itsasturi gaztea.*
- *Milesker.*
- *Ur-xirripa inhar batekin guduan.*
- *Zorionketaria.*
- *Barbier-en oroitzapenetan.*
- *Nola Aldude sortu zen.*

Antzerkiak

- *Sarea.*
- *Maritxu.*
- *San Frantses Xabier.*
- *Amerikanoa.*
- *Mirikuan.*
- *Oiharzunak.*
- *Ilargia.*
- *Egiazko argia.*
- *Hil-biziaren ordenua.*
- *Eguberri.*
- *Xalbat-en mertxika ondoak.*

- *Orratza.*
- *Gonzalve edo Ostatu betea.*
- *Arroltzeak.*
- «*A l'écoute de notre âme*» (*choeur parlé, frantsesez*).

Liburuak

- *Eskual Herriaren Alde.*
- *Eskualdunen Loretegia I.*
- *Georges Lacombe (Euskalzain sartzeko hitzaldia).*
- *Hazila edo hilen ilabetea.*
- *P. Ithurralde-ren kantuak.*
- *Ebanjelio ttipia (bi ager-aldi).*
- *Idek eta Zabal.*
- *Julien Heguy apeza.*
- *Koplarien Legea.*
- *Murtuts eta bertze.*
- *Eguberri aroa Euskaldunen obiduretan.*
- *Pierre Topet Etxahun.*
- *Grammaire Basque (3 ager-aldi).*

Argitaldiak

- Elizako liburu ttipia, *Simon Durruty-rena.*
- *Buruxkak, J. Etchepare mirikuarena.*
- *Axular, J. Etchepare mirikuarena.*
- *Euskalzainburu, J. Etchepare mirikuarena.*
- *Gure erlisionea frogatua, Lassalle kalonjearena.*
- *Les meilleures pages de Mgr Saint-Pierre.*
- *Oxobi-ren lan oroigarri zenbait.*
- *L'oeuvre de Salvat Monho, texte, traduction et notes.*
- *Har-uzka, Zepburu-rena.*
- *Zer eta zer, J. Hiriart-Urruty kalonjearena.*
- *Manex Etchamendy-ren bertsuak.*
- *Becas-en bertsu andana bat.*
- *Kantuz, kantu herrikoi bilduma.*
- *Errepikan, bilduma horren segida.*
- *Piarres Ibarrart-en koplak.*
- *J. Hiriart-Urruty kalonjearen artikulua hautu bat —sei dotzenaz goiti— bi liburutan: a) Mintzaira, aurpegia, gizon b) Zezenak errepublikan.*

Lankidekilakoak

- *Philippe Aranart kalonjearekin, aita Lhande-n Dictionnaire basque-français, delakoa, hirugarren ataletik aintzina.*
- *Ph. Aranart berarekin, Julien Heguy-ren Maiatza.*
- *Ph. Aranart berarekin, Maiatza horren bigarren ager-aldia, bertze Heguy baten ixtorio zenbaitekin.*
- *Ph. Aranart berarekin, Vocabulaire français-basque (mots groupés d'après le sens).*
- *Paul Etchemendy apezarekin, Kantuz, musikaz lagundua.*
- *André Tournier jaunarekin Lexique français-basque.*
- *Manu Sota, Akesolo eta abarrekin, Diccionario Vasco de Autoridades, Retana, agertzen hasia.*
- *Mark Légasse-kin, Gaztibeltzaren Karabinak eta Santxo Azkarra.*

Artikuluak

- *Apezak beti azken hitza bere.*
- *Araudia.*
- *Atxikitzeke orena.*
- *Auzi bati datxikola.*
- *Axular-en liburua.*
- *Azkue (Resurrección Ma).*
- *Azkainen.*
- *Berritasunaz.*
- *Debrusa.*
- *Dei bat.*
- *Lan eskasa.*
- *Leon jaun apezak eskuaralat itzuli duen Jesu Kristoren Imitazioneaz.*
- *Maria Lazo.*
- *Martin Landerretche apeza.*
- *Mistral-en Mireio euskaraz.*
- *Paulo Zamarripa apez zena.*
- *Pereka eta zimiko.*
- *San Nerses-en otoitza.*
- *Spinoza.*
- *Aita Blas Mendiondokoa.*
- *Barbier jaun apeza.*
- *Baxenabarreko josteta bat: Atso eta Tup.*
- *Bernard Gazteluzar olerkaria.*
- *Domingo Soubelet.*
- *Euskal hitzak nola errexkiago eta hobeki ikasi.*
- *Euskal ipuinak.*
- *Euskal Aditzeko 3 -Ke atzizkiak.*

- *Eskualzaleak Alduden.*
- *Herri-literaturaz.*
- *Eskualdun zintzo bat: Juan Esperne.*
- *J. Etcheberri Almanaka-ren aita.*
- *Jean Elissalde.*
- *Joanes Chabagno.*
- *K eta Z arteko aldizkatzea.*
- *Liburu eder bat: Obrak mintzo.*
- *Nola itzul euskaraz Voir: Ikusi ala Ikus bitzaz?*
- *René Lafon-ez bi hitz.*
- *Zelestin eta Zezilia arteko perpausa (1808).*
- *Zer dakigu Leizarragaz?*
- *Eppherre Grégoire.*
- *Eppherre Guillaume.*
- *Platonen biru aurpegiak.*

BIBLIOGRAFI-artikulu zenbait ehun berduratu ditu aldizkarietan, bereziki GURE HERRIA-n eta HERRIA-n.

Ipuiak

- Biziki luze loake behar balire kondatu bai GURE HERRIA-n, bai ALMANAKA-n, bai HERRIA-n agertu euskal ipuinak.*
- *ALMANAKA-k: 1944-tik hunat, urte oroz ateratu du Piarres Lafitte-k «Gure Almanaka» dena euskaraz (beraz 33 Almanaka).*

Kazetaritza

- Le Courrier de Bayonne.*
- La Liberté du Sud-Ouest. P. L.*
- La Presse. Zazpi.*
- Le Carillon des Jeunes. Pierrette Labé.*
- Basque-Eclair. P. L.*
- Eskualduna. P. L.*
- San Frantses. P. L.*
- Aintzina I. Asko izenorde.*
- Aintzina II. P. L.; Ithurralde.*
- Gure Herria. P. Lafitte.*
- Herria. P. L.; E. G.; Eiberazaina.*
- Fontes. P. Lafitte.*
- Egan. P. Lafitte.*
- Euskera. P. Lafitte.*

Encyclopedia Universalis. P. Lafitte.
EUZKO JAKINTZA. P. L.; P. Lafitte.
EUZKO GOGOA. P. Lafitte.

Euskara-tik kanpo

Euskaratik kanpo, zazpi urterik barne Testamentu berri eta Zuhurtzia-ko liburu guziak analisatu ditu lerro-lerro greko mintzairetik filologi lan batean (biztegi eta gramatika). Ez da lan hori nehun agertu.

PIARRES LAFITTE Kazetalari

(Emile Larre-n galdeketa)

— Piarres Lafitte jauna, kazetekin noiz ukan zinuen zer bait egiteko?

P.L.—*Ithorrotzen jaun erretorak igande goizetan mezetatik landa sal-arazten zauzkitan, beretter nintzalarik, Eskualduna eta La Liberté du Dimanche. Aitortuko dautzut ez nituela irakurtzen ez bata ez bertzea. Ez dut uste orduan bildu dutan ene kazetalari gostua.*

Izaitekotz Beloke-ko Semenariotipian, hastapen bat ukan nuen. Nere bango azken urtean Vogel ene eskolakide batekin ikastegiko astekariño bat sortu ginuen, Le Palmipède erraiten giniona. Ez zen ixilikakoa. Agertu gabe, Harizmendi apezak so bat egiten zion. Aitor dut zetabe larria zerabilkala eta gure piko eta zirrikak alegaraki jasaiten zituela, omore onaren fagoretan. Egia erran, gure eskola lagunaren jostatzeaz bertze xederik ez ginuen. Ez ginuen ez filosofiarik, ez literatura serioarik, ez politikarik aipatzen. Komunikabide bat bazela konprenitu nuen balere, 17 urtetan.

— Ba bainan izan bide duzu egiazko kazetaritzari lotzeko bertze paradarik?

P.L.—*Segurki, eta uste baino lehen. Pazkoz Baiona-ko Semenariot handian sartu ginen apezgaiak, gobernuak ez zezan etxe berri hori soldado eritegitzat bahi. Eta apezgai soldado obiak pirka-pirka heldu baitziren eta nahi baitzioten gerlan galdu denbora poxi bat irabaz-arazi, uda eta udazken guziaz atxiki zituzten, eta gu gazteak, bakantza luzeak ukan ginituen. Hain xuxen gerla ondoko lehen bozak heldu ziren. Aitor dut orduan Uztaritzen bainintzen, egun oroz hurbildik jarraikitzen nitzaion bozketako kanpañari kazetetan. Egun batez Garat deputatu radikala jin zen Uztaritzerat eta herriko eskolan egin zuen bere programaren agertzea. Ukan zituen ere ibardokitzaile bipilak. Etxerat itzuli-ta bero-beroa idatzi nuen artikulua bat jostagarria bilkura hortaz eta Amédée Larriue Baionako Le Courier kazetaren kudeatzaileari igorri eta agert-arazi zuen izenik gabe. Artikuluak ukan zuen elebide eta Larriue-k galde egin zautan aintzina eman nezan beretik. Jarraiki nintzaion, prosaz eta bertszuz, eta gustu hartu nuen. Nehork ez zuen pentsatzen 18 urteko mutiko baten arrazoinak eta kitzikak zitaizkela.*

— Horiek oro frantsesez idazten zinituen ala euskaraz?

P. L.—*Frantsesez. Ez nintzan oraino euskarari lotu. 1920 eta 1921 urtetan hasi nintzenean buru eta beharri gure mintzaire xaharrean pulunpatzen, ohartu*

nintzen euskal prosa biziki zaila zela joskeraren aldetik. Orduan eman nintzen bertsu egiten, neurrien eta rimen estakuruan joskera libro batez baliatuz. Eskualduna kazetan Piarres ttikia baten kantu batzu agertu ziren, Blaise Adéma kalonjeak sustatzen ninduela. Emeki-emeki ausartatu nintzen prosaz ere baliatzerat bai Euskalduna astekarian, bai Gure Herria aldizkarian. Huntan Laurent Apeztegi apezak 1924-ean bere lagunkide hartu ninduen.

– Apezgai zinen gertakariak ditutzu horiek. Apeztu-ta aintzina ari izan zireia?

P. L.—Apeztu-ta Akitaniako nestatoko talde batek nahi ukan zuen aldizkari «feminista» bat jalgi: Le Carillon des Jeunes eta Baionako andere sindikalista batek, Uztariztar batek ene izena emanik, izkiriatu zautan ea ez nituenetz lagunduko eta Pierrette Labé izenordeaz beien asmoen alde idazten ari izan nintzen.

Anartean noiz behinka zenbait lerro igortzen niozkan Eskualdunari, P. L. sinaturik. Bainan berantago beharko nuen lan luze bati lotu. 1926-ean Mixel Iriart Uztaritze-ko erretorak hasi zuen astekarian Ebanjelioaren itzulpena bere baitako argitasun baliotsez aberasturik. 1929-an hil zelarik Saint-Pierre jaun kalonjeak galde egin zautan ea Iriart zenaren sailari jarraikiko nintzaionez. Baietz eta zenbait urterik barne lan hori bururatu nuen. Uste dut artikulu horiek bilduz balitakela liburu gotor baten baten gaia. Soubelet jaun kalonjearen eguneten bururatu nuen ebanjelio argitze hori.

Laguntzen nuen ere anartean Bordeleko La Liberté du Sud-Ouest, La Petite Gironde kazetari, poxi bat ibardoki beharrez.

Baionan La Presse agertu zenean Zazpi izenordearen pean erdaraz agerazten nituen euskal-kulturazko argitasun zenbait.

– Hoinbertze kazetek beren atea idekitzen zauzkitzunez geroz zertako jalgi zinuen AINTZINA ilabetekaria?

P. L.—Egia erran, kazeta horiek orok ez ninduten osoki asetzen. Ene iduriko ez zituzten aski begiratzen ez jendeen, ez eskualdeen, ez herrien, ez erlisionearen, ez kulturaren eskubideak.

Eskual-herrizaleen artean erabiltzen ginituen ideiak nahi baiginituen argitu eta hedatu, erabaki ginuen aldizkari xume baten ager-araztea.

Elizaren aldetik ez baiginuen erraitekorik piztu nahi, gaztek eskatu zautaten «programa» bat egin nezoten abal bezain argi eta zuberua. Baliatu nituen P. Lallement-en Principes catholiques d'Action Civique, Du Passage-n Morale Sociale, Yves de La Brière-n Cours de Droit International. Muga horietan ixuri nuen Euskal Lege Zabarren mamia eta liburuxka batean ager-arazi, aita Yves de La Brière jesuitari hurbildik irakur-arazirik. Frantsesez eta Euskaraz agertu zen Eskual-herriaren alde. Horri jarraiki zitzaion Aintzina, 1934-etik harat, 33 ilabetez. Nibaurek kudeatzen nuen aldizkaria, lankide nituelarik zoin bere sailean, L. Lassale, P. Narbaitz, Jean eta Madeleine Jaureguiberry, Ph. Aranart,

A. Lamarque, P. Picochet, J. Hastoy, J. Duboscq, F. Hastoy, J. Mestelan, L. León, Jean, Michel eta Mayi Diharce, M. Labéguerie, Molerés, J. Richter eta abar.

Espainiako gerlak eta Europakoak funditu gintuzten. Orduantxe itzali zen ere Emmanuel Souberbielle-k eta biek, 1928-tik horrat kudeatzen ginuen Gure Herria kulturazko aldizkaria.

– 1942-an ez zena AINTZINA berriz piztu?

P. L.—Bai, Marc Légasse eta André Ospital-en manupean izen hortako errebieta bat sortu zen 1942-ko urtarrilan. Haren oborezko batzordekoa nintzen, Mgr Saint-Pierre, Madeleine eta Jean Jaureguiberry, Aita Donostia, Louis Dassance, Georges Lacombe, Jean Elissalde, Jules Moulier adixkideekin. Agerkari hortan ez dut noiztenka baizik izkiriatu.

— Nola argitaratu zen HERRIA kazeta?

P. L.—Eskualdunak Alemanen denboran irauñ zuen, abal zuen bezala, heien alde guti edo aski agertuz Ruso komunixten etsaiak zirelakoan. Amerikanoeri eskerrak Frantzia askatu zelarik, kazeta hori suntsitzerat kondenatua izan zen eta Arotzarena haren buruzagia preso emana. Ez zen gehiago euskarazko aldizkaririk. Léon Uztaritzeko erretora griñatu zen egoera hortaz eta joan zen Milafrangarat Mgr Saint-Pierre-n mintzatzerat, ez zenez bada zerbait egiten abal euskarazko kazeta berri baten sortzeko. Apezpiku honek bildu zituen euskalzale moltzo bat, eta iduritu zitzaie, ni ez bainintzen sekulan Alemanen alde agertu, errexxiango ardietsiko nuela aldizkari berriaren egiteko baimena. Baionan bazen Comité de Libération delako bat bere baitarik bildua; bazter hautako egiteko guzien manatazaille jarria baitzen, harekin behar ukan nituen gauzak xuritu. Erriente ohi batek pentsatu zuen apezken eskuetarik euskarazko kazetaren kentzeko parada ona zela eta mila estakuru bilatu zituzten zenbaitek gure xedea trabatu nabiz. Bizkitartean De Hiriart eta Defos du Rau jaunek sustengatu ninduten. Haatik behar omen zen igurikatu Pauko eta Bordeneko batzorde berezien finkamena. Eta finkamenik ez heldu. Jakinik Bordeneko «rue Judaique» bazela bulego bat, harat joan nintzen eta han jakin nuen ez ginuela nehoen baimenik behar kazeta baten jalitzeko, bainan hala beharrez erraiten abalko nuela ukana nuela. Etxerat-eta gaztiatu nion Garat jaun mediku Comité-ko buru zenari baimena ukan ginuela. Eta 1944-eko hazaroaren 16-ean HERRIA jalgi zen abal bezala, paper guti izanez. Ondoko egunetan Plevén ministroa Bordelerat jin zen mailegu nazional baten alde mintzatzerat. Joan nintzaion entzuterat eta gero galde egin nion «un bon de papier d'imprimerie» haren mailegua artamenda abal ginezan.

– Bainan ez dautazu dirurik aipatzen. Egungo egunean ikusten dutanaz sos horrek munta handia du kazetaritzan.

P. L.—Nabiz orduko prezioak oraiakoak baino biziki apalagoak ziren moltsa jadanik polliki xangratzen zuten. Milafrangan bitzeman zautaten laguntza asko, bainan Elissalde-k eman zautan mila liberakoaz kanpo ez nuen pilik ikusi heien partetik.

Baztertu nituen sosño guziak hor enpleatu nituen. Behar dut salatu haatik bi urtez Monzon-ek eta Manu Sota-k hogoira libera ilabete oroz eman dautatela eta abalaz hiru ilabetetarik sar-arazten ginituela kazeta sariak, inprimeria ilabeteka ordaindu beharrez.

— Eta aise hedatu zena zure kazeta berria?

P. L.—*Jakin behar duzu Eskualdunak bere azken egunetan ez zuela 1200 irakurle baizik, Soubelet-ek zortzi miletan utzi zuelarik. Euskaraz irakurtzeko usaia hasi zen bazterretan galtzen. Bertzalde Eskualdunaren irakurle andana batek ez zuen onhartzten gure berrikuntza eta egin abalak egiten zituzten gure kontra. Beharrik aroa ari zitzaikun aldatzen!*

— Zoin ukan ditutzu jazar-aldi gogorrenak?

P. L.—*Behin Ybarnegaray famatu zenak konpainia batean Mgr Terrier jaun apezpikuari kondatu zion Baigorriin FFI delako tropa batek bandera frantsesa hedatzen eta Marseillaise-a kantatzen zuen aldi batez, eskandala gorria eman nuela ez buruhastuz eta jarririk egonez. Jaun apezpikuak deitu ninduen gauza horien argitzeko, egiak balinbaziren HERRIA utz-araziko ninduela. Erran nion ez nuela behin ere Baigorriin FFI-rik ikusi, ez Marseillaise-rik aditu, ez frantses banderarik hedatzen hauteman. Aski zuela inkesta bat egitea eta haren jujamenduari mentzerat prest nintzala. Handik hamabortz egunen buruan jakin-arazi zautan Ybarnegaray jaunak ez zuela frogarik, omen-omenka mintzatu zela. Beraz aintzina ar nindadila kazetaritzan.*

Bainan kolpe handiago bat apailatu zautaten zenbait kontrariok kazetako biltzar nagusiko lagunak berotuz ene baztertzeke. Hazparnen bildu ziren azpikeri horren muntatzeko. Norbaitek berehala eni salatu eta nik lagun bakotxari letra bat igorri, otoi letraz erran zezadan zer pentsatzen zuen ene kazeta-lanaz; ondoko ortzegunean jin zadila bere lagunekin eta emanen niotela ene xedeen berri, Le Courier-ko inprimerian. Gehienek ihardetsi zautaten ez zirela ene ideiekin akort; denak jin zitzaizkitan. Eskaini nioten kafe presa bana ttottarekin eta hauxe izan zen ene azalpena:

«Jaunak, irakurri ditut zuen letrak eta ikusten dut argi eta garbi zuetarik gehienekin ez naizela adox. Damugarri zait. Deitu ninduzuen HERRIA-ren muntatzerat eta hitzeman zinautaten zuen laguntza. Elissalde jaun apezak du bakarrik mila liberako bat eman. Eraikitzeke ageri ofiziala zuetarik nehorke ez du sinatu. Utzi nauzue berbera. Kazetak jabe bat behar baitzuen, ene izena eman dut komertzioko ganberan. Beraz ez naiz zuen etxean, zuek zirezte enean. Egia erran, ez zait batere gustatzen jabe bakar egoitea. Gure obrak euskaldun moltzo batena izan behar du. Proposatzen dautzuet enekin egoitea. Bizkitartean aise konprenituko duzue, maioria nabi baitut ene etxean, gizon berri andana bat sar-araziko dudala biltzar buruan. Orai zuihaurek ikus egoiten zirezten ala ez!».

Batek salbu, bertze guziek egoitea hautatu zuten. Gauzak zuzendu ginituen eta kazeta moltzo baten eskuetan ezarri.

— Ordutik zer bilakatu zen HERRIA?

P. L.—*Beti emendatuz joan ziren gure irakurleak. Bereziki Algeriako gerlak laguntza handia eman zaukun: Eskualdun Gazteriak HERRIA igortzen zeien ban ziren soldadoeri, hemengo berri jakin zezaten. Uste ginuen etxerat itzuli-ta aintzina nabiko zutela gure kazeta atxiki, bainan ez zen hala gertatu.*

Anartean Pau-eko Eclair kazetako buruzagi zenbaitek nabiko ninduketen bildu beren lanerat. Mgr Terrier-i izkiriatu nion Uztaritzeko ene apezlana iduri zitzaizala baliosago Biarnon kazetari huts gisa eginen nukeena baino Ihardetsi zautan harek ere hala uste zuela.

Uztaritzetik mugitu gabe 1961-ean, Basque-Eclair agertu zelarik esku kolpe bat eman niola aitortu dut; haren bidez pentsatzen bainuen eskual izpiritu zerbait bedatzen ahalko zela.

— Ez zinuena auzi bat izan Afrikako egitekoetz?

P. L.—*Bai, egun batez Pierre Larzabal eta ni izan ginen jaukituak, HERRIA-n agur bat ager-arazirik berengaintasuna galdatzen zuten Algeritarreri Prefetak presondegia eta amanda gazi bat nabiko zuen bil ginitzan.*

Kontseilu Jeneraleko jaun guziek dei egin zuten Pariserat auzi hori utz zezaten loakartzerat, eta nabiz auzibideko jujearen aintzinerat iragan ginen, ez gintuzten tribunalerat ager-arazi.

Orduan Vignancour eta Garat kazetariak bertze eskuindar batzuekin kanpaña gaitza egin zuten HERRIA-ren kontra. Aitortu behar dut kalte handia egin daukutela.

— Eta geroztik?

P. L.—*1967-ko buruilaren 27-an HERRIA-ren moldatzeko kargua utzi nion Jean Hiriart-Urruty jaun apezari eta handik bi urteren buruan zuri tokatu zitzaizun. Uste dut bai bata bai bertzea utzi zaituztedala zuen jeinuaren arabera lan balios eta eder baten egitera, langile xume eta jarraiki egonez.*

— Funtsean zerk bildu zaitu hain kartsuki kazetaritzari jarraikitzerat?

— P. L.—*Hastean josteta bat bezala zitzaitan. Bainan laster ulertu nuen ideien eta mintzaiaren hedatzeko bide bat.*

Apez gisa, kazetaren medioz ez ginuena parropian baino jende gehiago hunkitzen?

Idazlari kondu ez ginuena irakurle gehiago liburuen medioz baino?

Euskalzal kondu, ez ote zen euskararen zaintzeko eta aberasteko lan hurri eta jarraiki bat. Urte baste guzietz galtzerat ari ziren hitz edo joskera-molde batzuen zerrenda bat finkatzen nuen eta gero astez-aste, noiz artikululu batean, noiz berrietan, noiz berrixketan, noiz irri-solasetan, alegia deus-ez, sakatzen nituen. Ondoko egunetan atseginekin obartzten nintzen gure lankide batek edo bertzeak beretzen zituela.

Hor ditutzu lehen-azken ene gibel-asmu guziak.